



60 lagun inguruk parte hartu zuten atzoko protesta elkarretaratzean. ENDIKA URLEZAGA

## Protesten artean zabaldu dute Gernikaldea Bereizmen Handiko Zentro barria

Busturialdeko hainbat eragilek eta Galdakaoko ospitaleko sindikatuek egin dute protesta eraikinaren aurrean

Endika Urlezaga Gernika-Lumo

Osakidetzak protesten artean zabaldu du Gernikaldea Bereizmen Handiko Zentroa. Osasun zentro barriak atzo hartu zituen lehen gaixoak, baina poztasuna ez zen erabatekoa izan. Busturialdeko hainbat eragile, eta Galdakaoko ospitaleko sindikatueta ordezkariek eraikinaren aurrealdean batu ziren, euren haserrea Rafael Bengoa Osasun Sailburuari helarazteko. Bertoko eragileek eraikina «benetako ospital bat» izan dadin eskatu zuten barrero be, eta sindikatueta ordezkariek «murrizketei eta privatizazioei ezetz esateko» elkartu ziren. Guztira, 60 lagun inguru batu ziren protestan.

Naiara Urberuaga Gernika-Lumoko zinegotziak bertoko eragileen izenean esan zuenez, «Bengoari azalpenak eskatzeko» batu ziren osasun zentroaren aurrean. Izan be, ez dute ulertzen zentroa horren zerbitzu gutxiarekin zabaltzea. Urberuagak nabarmendu zuenez, ambulategiko espezialisten kontsultak lekualdatu dituzte eraikin barrera, baina Osakidetzak ez du beste pausorik emon.

Busturialdeko eragileek «ongi etorria» emon zioten zentro barreri, baina osasun arduradunek

«agindu zituzten zerbitzu guztiekin osatzea» falta dela diote. Hala, aurrerapauso handia izango litzatekela argudiatuta, hemodialisia, etxeko ospitaleratze zerbitzua, 24 orduko larrialdi zerbitzua eta kirurgia handiak zein txikiak egiteko guneak lehenbailehen jartzea eskatu dute.

Modu berean, eraikinaren hirugarren solairuan 70 ohe jartzea aldarrikatu zuten protestan bildutakoek. Urberuagak azaldu zuenez, Gabriel Inclan Osasun Sailburu zenean diseinatutako proiektuak argia ikustea gura dute. Hirugarren solairua hutsik dagoela gogoratu zuen, eta horrenbestez, oheak jartzea erreza izango litzatekela deritzo.

**Urdulizen egin bezala, «benetako ospital bat» gura dute bertoko eragileek**

**Aurreikusitako bisita atzeratzea erabaki zuten Osakidetzako arduradunek**

Busturialdeko eragileek eskualdeak jasan duen «utzikeria» be salatu zuten. Diotenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ez dute bidezko neurririk hartu kalitatezko osasun zerbitzu bat bermatzeko aldera. Urberuagaren berbetan, «etxeko ospitaleratze zerbitzurik ez duen eskualde bakarrak dira Busturialdea eta Lea Artibai, ospital

handiak urrunegi daudela kontuan hartu barik».

Eduardo Garate eta Santiago Rabanal Osakidetzako arduradunek eraikin barria bisitatu behar zuten atzo, baina bisita atzeratzea erabaki zuten azken momentuan. Hala, zentroa medikuntza tresneriaz hornitu ostean egingo dute aurkezpen ofiziala.

**Pilota EAJren teilatuan**

Pilota EAJren teilatuan dago orain, ohedun ospitalaren aldeko mugimenduko kide Camino Saizek dioenez. Haren berbetan, PSOEek ez du Gernika-Lumoko proiektua defendatu, Urdulizko ospitalagaz egin duen bezala. Urdulizkoa be Bereizmen Handiko Zentro bat zen hasieran, baina azkenean, ohedun ospital bat egitea erabaki zuten Gernika-Lumon, bestalde, ez da bardina gertatu, inguruko herritarrek behin eta barrero eskatu arren.

Saiz baikor azaldu da, baina oheak jartzeko borrokatu egin beharko dutela deritzo. «Dirudienez, denboragaz herritarrek eskatutako zerbitzu gehienak jartzeko asmoa du Osakidetzak, baina benetako ospital bat izatea da azken helburua», dio. Hala, behar diren protesta guztiak egingo dituzte.

Osakidetzak eskatutako zerbitzu gehienak jarriko dituela esan du ohar bidez, baina protestan bildutakoek «lehenbailehen» izatea eskatu zuten. «Eraikineko obren prozesuak beste iraunez gero, luzaroan ez dugu zerbitzu barririk izango», gogoratu zuten.

## 25. urteurrena ospatuko du Gernika Gogoratuz elkarteak

Domekan egingo dute ospakizun jaia, Astran; 12:00etan hasiko da jaialdia, harrera ekitaldiagaz

E.U. Muxika

Gernika Gogoratuz elkarteak 25. urteurrena ospatuko du domekan, Gernika-Lumoko herritarrekin batera. Maria Oianguren elkarte kideak azaldu duenez, «jaialdi txiki bat izango da, elkarteak egindako lanaren eta datozen urteetako lan ildo orokorren barri emoteko».

Elkarteko kideak 12:00etan batuko dira Astran. Jakinarazi dutenez, ordu eta erdi inguru iraungo du urteurrenko ospakizunak, ez baitute astunegiak izan gura.

25. urteurrenko jaialdiari harrera ekitaldi batez emongo diote hasiera. Ostean, bideo emonaldi labur bat egingo dute, taldearen historiaren barri emoteko. Bideo emonaldia amaituta, Segundo Olaeta musika eskolako ikasleek zenbait abesti joko dituzte. Ospakizunak amaitzeko, bertolarren abileziagaz gozatzeko aukera izango dute bildutakoek.

Urteurren jaialdiak irauten duen bitartean, gainera, jarduera

berezi batean parte hartzeko aukera izango dute Astrara doazenean. Hala, «arteagaz zerikusia duen zerbitzu» egingo dutela aurreratu du Oianguren.

25. urteurrenko jaialdian herritar guztiek parte har dezakete, baina izena alde aurretik emotea gomendatu dute elkarte kideek. Azaldu dutenez, «leku faltan ez egoteko abisatzeko gomendioa egiten dugu, baina izena emoten ez dutenek be ongi etorriak izango dira».

94-625.35.58 telefono zenbakira dei eginez, edo [gernikag@gernikagogoratuz.org](mailto:gernikag@gernikagogoratuz.org) e-postara idatziz emon daiteke izena.

**Ibilbide oparoa**

Oiangurenen berbetan, elkarteak ibilbide oparoa izan du orain arte, eta bardin jarraitzea espero du. 25. urteko ibilbidea aztertuz gero, balorazio oso positiboa egiten dutela nabarmendu du elkarte kideak, herriaren memoria gordetzen lagundu baitute. «Nondik gatozen eta norantz goazen jakiteko memoria ezinbesteko tresna» dela deritzote.

Zentzu horretan, «memoriatik etorkizuna eraikitzeko» Gernika-Lumo leku aproposena dela dio Oianguren. «Sinbolikoki oso aproposa da memoria, kultura, eta identitatea lantzeko».

## Autobusa jarriko dute Bizkaiko bertso finalera joateko

Onintza Enbeita animatzera joango dira muxikarrak; Lopategik jantziko dio txapela irabazleari

E.U. Muxika

Muxikako Udalak Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalera joateko autobusa jarriko du zapatuan. Muxikarrak 15:30ean irten go dute Kurtzero auzoko autobus geltokitik, baina Ariatzan eta Zugastietan be batuko dituzte bertsozaleak.

Autobusean joateagatik ez da ordaindu behar, baina ezinbestekoa da izena alde aurretik emotea. Interesatuak Zubietarrotan

edo udaletxean emon dezakete izena, 94.625.79.42 edo 94.625.27.01 telefono zenbakietara deituz.

**Bi muxikar protagonista**

Bizkaiko bertsolariaren jaietan bi muxikarrek parte hartuko dute aurrean, eta herrikideak harmailetan egongo dira animoak emoten. Onintza Enbeita irabazlearen txapelagatik lehiatuko da beste zazpi bertsolariekin batera, eta Jon Lopategik, bestalde, txapela jantziko dio irabazleari. Bertsolariaren sustapenean izan duen garrantziagatik aukeratu dute bertsolari ohia irabazleari txapela jartzeko.

Zaila izan arren, muxikar batak beste muxikar bati txapela jantzeko aukera be egongo da zapatuan.